# Te quiero, niña bonita

**Paula Garcia**
2001ean jaioa, Txinan
2002an Gipuzkoan adoptatua

"–Te quiero niña bonita –te susurré. ¿Cómo era posible? ¿Cómo podía nacer tanto amor a tanta distancia? ¿Por qué una niña de China, un país tan lejano, me había robado el corazón?"

Rose Lewis,
*Te quiero, niña bonita*

**Hitz hauekin** hasten da amak ni iristerako eskuratutako ipuin baten pasartea, Txinan haur bat adoptatzen duen emakume baten istorioa, nirea bezalakoa, eta horrela hasten da duela urte gutxi batzuk idatzitako nire gradu amaierako lana ere. Adopzioari buruz idatzi nuen, adopzioari buruz hitz egin behar dugulako.

Adopzioa antzinarotik existitu izan da, eta mendeekin bilakatu egin da, haurren babeserako baliabide bihurtu arte, familia bat izateko duten eskubidea bermatzeko tresna izan arte. Baina adopzioa ez da helburu hori betetzean bukatzen, ez da azken hamarkadetan gauzatutako bidaia eta paper-lanekin amaitzen. Garai hartako haurrok hemen gaude, gazte eta heldu, gure aurretik etorritakoei begira, gure ondorengoei eskua eman nahian, gure ahotsak topatzen eta aditzera ematen. Adopzioa bizitza osorako da, gure parte da, eta horregatik hitz egin behar dugu adopzioari buruz. Nola eraiki bestela gure nortasuna?

Izaki sozialak gara. Narratiben bitartez osatzen dugu geure bizi-istorioa, besteekin hartu-emanean. Adopzioak istorioaren hasieran hutsunea esan nahi du, galderak, zalantzak, mina, amorrua, tristura. Nondik nator? Zergatik ni? Geure burua ispiluan begiratu eta aurpegi, kultura, jatorri ezezagunak ikustea esan nahi du. "Bestea" izendatzen gaituen begirada geure begietan ere sartuta dugu. Arrazismoa, xenofobia eta ez-jakintasuna besoak zabalik jaso gintuen herri honetan ere badira. Adopzioa da familia normatibotik kanpo dagoena ere familia dela defendatu beharra, besteak bezainbeste garela gogoraraztea, nekez, hasperenka edo haserre.

## Ausardia eta kemena

Guzti honengatik, eta aipatu gabeko beste hainbatengatik, adopzioa ausardia eta kemena ere bada. Adopzioari buruz hitz egiteko eta bizi dugunon ahotsei lekua emateko espazio seguruak sortzen dituzten senide, lagun, langile eta bozeramaileen indarra eta berotasuna. Partekatutako beldur, min, galdera eta esperientziekin eraikitako maitasun, babes eta adiskidetasunezko komunitatea. Bizitza eta gizartea begirada intersekzional eta aberatsago batetik ikusteko aukera.

Adopzioa da familia normatibotik kanpo dagoena ere familia dela defendatu beharra, besteak bezainbeste garela gogoraraztea, nekez, hasperenka edo haserre

Ez da erraza hain konplexua den hori hitzetan jartzea. Izan ginen haurrok iraganean jatorrizko kultura, hizkuntza eta lurraldea atzean utzi eta bidaia luze batean zehar herri eta familia berri batera moldatu behar izan genuen. Adoptatu bakoitzak istorio eta prozesu propioa bizi du, baina kolektiboa ere bada. Hortxe daude haurtzaroko ipuinak, bidaietako bideo eta argazkiak, elkarrizketa luzeak, malkoak eta besarkadak, barreak eta algarak. Ume Alaia bezalako elkarteak, psikologoak, lagun eta kide arteko solasaldiak. Jatorrizko kulturara hurbilketak janari, liburu eta filmen bitartez, edota hizkuntza ikasteko ahaleginak eta itzulera bidaiak.

Nazioarteko adopzioaren bidez Euskal Herrira iritsi ginen asko eta asko helduak gara jada, eta egun halako adopziorik egiten ez bada ere, asko dugu etorkizunari eskaintzeko. Gure bizipenek eragina dute egungo gizarte politiketan, izango dute etorkizunekoetan, eta baita haurren babeserako tokiko erakundeen bidez egun egiten diren adopzioetan praktikak hobetzeko erabakietan ere.

Beraz, hona hemen gure hitza. Gizarte honen parte gara. Ikus gaitzazue. Hemen gaude.